**5 /2019 EBAZPENA, irailaren 13koa**

**RESOLUCIÓN 5/2019, de 13 de septiembre**

**PRESIDENTE:** MARIA BARRENA EZCURRA

**BATZORDEKIDEA:** AMAIA ZURBANO-BEASKOETXEA LARAUDOGOITIA

**IDAZKARIA:** IÑIGO ALVEAR LEKUE

**PRESIDENTA:** MARIA BARRENA EZCURRA

**VOCAL:** AMAIA ZURBANO-BEASKOETXEA LARAUDOGOITIA

**SECRETARIO:** IÑIGO ALVEAR LEKUE

Goian adierazitako kideek osatzen duten Bizkaiko Foru Aldundiaren gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordeak honako EBAZPENA eman du andrea txostengile gisa izendatu den aurkezturiko erreklamazioan; bertan, aipatutako batzordearen iritzia adierazi du.

La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, compuesta por los miembros anteriormente expresados, ha pronunciado la siguiente RESOLUCIÓN en la reclamación formulada por habiendo sido designada ponente quien expresa el parecer de la citada Comisión

## AURREKARIAK

**Lehenengoa.**- 2019ko maiatzaren 24an, informazio publikoko eskaera iritsi zen Bizkaiko Foru Aldundira. Gizarte Ekintza Saileko Umeen

## ANTECEDENTES DE HECHO

**Primero.**- El 24 de mayo de 2019 tuvo entrada en la Diputación Foral de Bizkaia solicitud de información pública de , dirigida al Servicio de

Zerbitzuarentzat zen, eta 2016ko urriaren 28an zendu zen amaren jatorriei buruzkoa zen.

Infancia del Departamento de Acción Social, en relación con los orígenes de su madre , fallecida el 28 de octubre de 2016.

Hartzaile zen Umeen Zerbitzuak eskaera jaso zuen, baina ez zion Modernizazio, Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailari atxikita dagoen Gobernamendu On eta Gardentasunerako Kabineteari helarazi.

Recibida la solicitud en el Servicio de Infancia al que iba dirigida, de la misma no se dio traslado al Gabinete de Modernización, Buen Gobierno y Transparencia, adscrito al Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales.

**Bigarrena**.- Hilabete igaro eta gero Gizarte Ekintza Sailaren erantzunik jaso gabe, 2019ko ekainaren 25ean, gardentasunaren inguruko erreklamazio bat egin zuen.

**Segundo**.- Transcurrido un mes desde la solicitud inicial sin recibir respuesta del Departamento de Acción Social, el 25 de junio de 2019 formuló reclamación en materia de transparencia.

**Hirugarrena**.- Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzorde honek erreklamazioa jaso eta gero, ikusita ez zegoela jasota informazio eskaera Modernizazio, Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailari helarazi zitzaionik, lehenengo jarduketa gisa, egindako eskaeraren inguruan izapidetutako espedientea Gizarte Ekintza Saileko Umeen Zerbitzuari eskatzea izan zen,

**Tercero**.- Recibida la reclamación por esta Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia, como primera actuación, a la vista de que no constaba que se hubiera dado traslado de la solicitud de información al Gabinete de Modernización, Buen Gobierno y Transparencia, se solicitó al Servicio de Infancia del Departamento de Acción Social el expediente tramitado en relación con la solicitud formulada por , así

bai eta izapide horiek azaltzeko txostena ere.

como informe explicativo de dicha tramitación.

**Laugarrena**.- 2019ko uztailaren 22an, Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordek eskatutako espedientea eta txostena jaso zituen. Azken horretan, hauxe adierazi da hitzez hitz:

> *"(...)*
>
> *Jatorriak bilatzeko espedienteei dagokienez, Umeen Zerbitzuak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epeak aplikatu ditu orain arte, eta ez Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauan jasotako epeak; izan ere, prozedura horietan aplikatu beharreko araudia zela uste zuen. Hori dela eta, ez zitzaion Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritzari jakinarazi espedientea abiarazi zenik, kontu horiek tratatzeko eremua ez zelakoan. Hala ere, mota horretako espedienteetan ordura arte egindako ohiko izapideak egin ziren.*
>
> *Jatorriak bilatzeko prozedurak prozesu luzeak dira, baita bilaketa ukatuko den kasuetarako ere; izan*

**Cuarto**.- El 22 de julio de 2019 se recibe por la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia el expediente e informe requeridos. En este último se señala literalmente lo siguiente:

> *"(...)*
>
> *El Servicio de Infancia ha venido aplicando a los expedientes de búsqueda de orígenes los plazos establecidos en la ley 39/2015 del 1 de octubre de procedimiento administrativo común de las administraciones públicas y no los plazos recogidos en la Norma Foral 1/2016 de 17 de febrero de transparencia de Bizkaia, entendiendo que esta era la normativa aplicable para estos procedimientos. Por ello, no se comunicó a la Dirección de Buen Gobierno y Transparencia la apertura de dicho expediente, por entender que no era el ámbito donde se han de tratar dichas cuestiones, siguiendo no obstante los trámites habituales que se venían llevando a cabo en estos expedientes.*
>
> *El procedimiento de búsqueda de orígenes es un proceso largo incluso para los casos en los que se va a*

*ere, indarrean dauden legeen arabera eskatzaileak ez dira prozesuko interesdunak.*

*denegar esta búsqueda, al no ser los solicitantes personas interesadas en el proceso, según la legislación vigente.*

*Kasu horietan, ukatu baino lehen, eskuragarri dauden foru artxiboetan egiten da bilaketa. Horrela, ukatzeko foru agindua emateaz gain, eskatzaileekin, haiek nahi izanez gero, elkarrizketa bat egiten da ukatzeko arrazoia azaltzeko. Jatorriak aurkitzeko inolako aukerarik ez dauden horietan inguruabar hori azaltzen diegu.*

*En estos supuestos, antes de proceder a la denegación, se realiza la búsqueda en los archivos forales disponibles para que, además de entregar la Orden Foral de denegación, mantener una entrevista con los solicitantes, si estos quieren, explicando el motivo de la denegación; y en aquellos casos en que el origen es un abandono "en torno", donde no hay ninguna posibilidad de encontrar el origen, se les explica esta circunstancia.*

*Jatorriei buruzko datuak daudenean, ezagutzera eman aurretik, aurretiazko bitartekaritza prozedura bat hasten da, Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen 84. artikuluan (informazioa eskuratu ahal izatea) ezarritakoarekin bat etorriz, eta sei hilabete baino gehiago iraun dezake prozesuak. Hori ez da bakarrik gertatzen prozedurengatik, bilaketak kudeatzen dituen lantaldeak duen lan kargagatik ere bai; izan ere, adopziora bideratutako zaintzarako eta adingabe horiek zentro batetik familia batera joateko babes-neurria duten adingabeentzako babes*

*Cuando hay datos de orígenes se inicia un procedimiento de mediación previo a revelación, de acuerdo a lo establecido en el artículo 84 de acceso a la información de la Ley 3/2005, de 18 de febrero de Atención y Protección a la infancia y la adolescencia y estos procesos habitualmente pueden durar más de seis meses; no solo por el procedimiento sino por la carga de trabajo que tiene el equipo que gestiona estas búsquedas, que prioriza los relativo a los expedientes de protección de menores cuya medida de protección es la guarda con fines de adopción y*

*espedienteak lehenesten dituzte.*

*la salida de estos menores de un Centro a una familia.*

*Kasu honetan, zegokion bilaketa egin ostean, 2019ko ekainaren 28an, eskatutako informazioa eskuratzea onartzen ez duen foru agindua eman zen, zilegitasunik ez zuelako eta adoptatutako pertsona ez zelako. Espedientean bertan, egun horretan egindako izapide bat dago jasota: eskatzailearekin harremanetan jartzea. Hain zuzen ere, berak esan zuen ez zuela elkarrizketarik egin nahi Umeen Zerbitzuarekin eta foru agindua postaz jaso nahi zuela aurkaratu ahal izateko.*

*En el caso que nos ocupa, una vez realizada la búsqueda correspondiente se procedió el 28 de junio de 2019 a emitir la Orden Foral por la que se desestima el acceso a la información solicitada por falta de legitimidad, al no tratarse de la persona adoptada. Consta en el expediente diligencia de ese mismo día en el que se contactó con la solicitante quien manifestó no querer tener entrevista en este Servicio de Infancia y querer recibir la Orden Foral por correo al objeto de proceder a su impugnación.*

*Hori dela eta, uste dugu informazioa eskuratzeko kasuetan haurrei eta nerabeei arreta emateko eta babesteko kasu honetarako berariazko erregimena ezartzen duen arau zehatza aplikatu beharra dagoela, eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko Legea arau osagarri bat izan behar da, ez zuzenean aplikatzekoa".*

*Por ello, entendemos que se ha de aplicar la norma concreta que establece en el presente caso un régimen especifico de acceso a la información pública en materia de atención y protección a la infancia y la adolescencia, debiendo de operar la LTAIBG como norma supletoria y no de aplicación directa."*

**Bosgarrena**.- Umeen Zerbitzuak bidalitako espedientean, halaber, Gizarte Ekintza

**Quinto**.- El expediente remitido por el Servicio de Infancia recoge también la Orden

Sailaren 2019ko ekainaren 28ko 38530/2019 Foru Agindua jaso da, zeinaren bitartez egindako informazio eskaera ukatu den informazioa eskuratzeko zilegitasunik ez duela uste delako.

Foral 38530/2019, de 28 de junio de 2019, del Departamento de Acción Social, por la que se desestima la solicitud de información formulada por por entender que no está legitimada para el acceso a la misma.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

**Lehenengoa**.- Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordea Bizkaiko gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauko 27. ex artikuluaren bidez eratu zen.

**Primero**.- La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia se crea, ex artículo 27, por la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia.

29.1.1 artikuluaren arabera, 2. artikuluarekin lotuta (biak foru arau honetakoak), Bizkaiko Foru Aldundiak, foru erakunde autonomoek, foru erakunde publiko enpresarialek, foru fundazioek, foru partzuergoek eta aurretik aipaturikoen desberdinak diren zuzenbide publikoko bestelako foru erakundeek informazio publikora sartzeko eskubidea berariaz edo ustez ukatzen badu Erreklamazio Batzordea izango da erreklamazioak ebazteko eskumena izango duena.

De conformidad con el artículo 29.1.1, en relación con el artículo 2, ambos de esta Norma Foral, la Comisión de Reclamaciones será la competente para resolver las reclamaciones frente a la denegación expresa o presunta del derecho de acceso a la información pública de la Diputación Foral de Bizkaia y los organismos autónomos forales, las entidades públicas empresariales forales, las sociedades mercantiles forales, las fundaciones forales y los consorcios forales y otros entes forales de derecho público

distintos de los mencionados anteriormente.

**<u>Bigarrena</u>**.- Otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauko 18-1 artikuluak informazio publikora sartzeko eskubidea aitortzen die pertsona fisiko eta juridikoei. Foru arau bereko 17-2 artikuluaren arabera, informazio publiko gisa ulertzen da: *"(...) foru arau honen egikaritzearen esparruan aurreikusten diren erakundeen esku dagoen eta horiei ezarri zaizkien eginkizunetan egin, aldatu eta eskuratu den edozein eduki edo dokumentu mota, erabiltzen den euskarria gorabehera (...)"*.

**<u>Segundo</u>**.- La Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, precitada reconoce, en su artículo 18-1, el derecho de las personas físicas y jurídicas a acceder a la información pública, entendida ésta, según el artículo 17-2 de la misma Norma Foral, como: *"(..) cualquier tipo de contenido o documento, independientemente del soporte que se utilice, que obre en poder de las entidades previstas en el ámbito de aplicación de la presente Norma Foral y que hayan sido elaborados, modificados o adquiridos en el ejercicio de sus funciones (...)"*.

Beraz, arauak informaziora sartzeko eskaera baten xedea jadanik existitzen denaren arabera definitzen du, eskaera jasotzen duen organoaren esku baitago; organo horrek egin duelako edo ezarriak dituen eginkizun eta eskumenen baitan eskuratu duelako.

Por tanto, la Norma define el objeto de una solicitud de acceso a la información en relación a la que ya existe, por cuanto obra en poder del órgano que recibe la solicitud, bien porque el mismo la ha elaborado o bien porque la ha obtenido en el ejercicio de las funciones y competencias que tiene encomendadas.

**<u>Hirugarrena</u>**.-Planteatutako lehenengo kontua da egindako eskaera informazio publikoa

**<u>Tercero</u>**.- La primera cuestión que se plantea, no obstante es determinar si la solicitud formulada por se

eskuratzeko eskubidearen barruan dagoen edo ez zehaztea, edo Umeen Zerbitzuak uste duen bezala, informazio eskaera Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen babespeko jatorriak bilatzeko informazio eskaeraren barruan sartu behar den.

incardina o no dentro del derecho a obtener información pública; o si como ha entendido el Servicio de Infancia la solicitud de información debe encuadrarse dentro del procedimiento de búsqueda de orígenes amparado en la Ley 3/2005, de 18 de febrero, de Atención y Protección a la Infancia y la Adolescencia del País Vasco.

Hori zehaztea funtsezkoa da; izan ere, informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen barruan sartu ezin bada, Umeen Zerbitzuak ondo izapidetu du eskaera, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutako administrazio prozedura orokorra bete behar da.

La importancia de determinar esta cuestión es fundamental por cuanto, de no poder incardinarse dentro del derecho a obtener información pública, la solicitud se habría tramitado correctamente por el Servicio de Infancia y debe sujetarse al procedimiento administrativo general previsto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

1. *<u>Informazioa eskatzeko arrazoi den tituluari dagokionez</u>*

Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen 84. artikuluan honako hau xedatu da:

1. *<u>En cuanto al título en virtud del cual se ha solicitado la información</u>*

El artículo 84 de la citada Ley 3/2005, de 18 de febrero, de Atención y Protección a la Infancia y la Adolescencia del País Vasco señala lo siguiente:

"84. artikulua – Informazioa eskuratu ahal izatea

*1. – Herri-erakundeetan edo erakunde laguntzaileetan zerbitzu ematen duten pertsonek isilpean gorde beharko dituzte adoptatuengandik eskuratutako informazioa eta adoptatuen seme-alabatasunari buruzko datuak.*

*2.– Aurreko hori gorabehera, eta haurrek eta nerabeek beren guraso biologikoak nor diren ezagutzeko duten eskubidea bermatze aldera, lege honetako 11. artikuluan, Haurren Eskubideen Konbentzioaren 7.1 artikuluan eta Haurraren Babesari buruzko eta Nazioarteko Adopzioaren arloko Lankidetzari buruzko Hagako 1993ko Itunaren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, herri-administrazioek adoptatuen seme-alabatasun biologikoari buruz dauzkaten datuak adoptatutako pertsonen eskura jarriko dituzte, baldin eta haiek hala eskatzen badute. Horretarako, neurri egokiak hartu beharko dira batez ere; isilpeko bitartekaritza-prozedura bat eskaini beharko zaie datuak jakinarazi aurretik, eta, prozedura horretan, alde bakoitzaren familia- eta gizarte-egoeraren berri emango zaie hala adoptatuari nola haren guraso biologikoei, bai eta aldeetako bakoitzak beren arteko topaketari*

*"Artículo 84. – Acceso a la información.*

*1. – Las personas que presten servicios en las entidades públicas o en las entidades colaboradoras están obligadas a guardar secreto de la información obtenida y de los datos de filiación de los adoptados.*

*2.– Sin perjuicio de lo anterior, y en garantía del derecho de los niños, niñas y adolescentes a conocer la identidad de su padre y madre biológicos, de conformidad con lo previsto en el artículo 11 de esta ley, en el artículo 7.1 de la Convención de los Derechos del Niño y en el artículo 30 del Convenio de La Haya, de 1993, sobre Protección del Niño y Cooperación en materia de Adopción Internacional, las administraciones públicas facilitarán a las personas adoptadas, si éstas lo solicitaran, los datos de los que dispusieran con respecto a su filiación biológica. Para ello deberán adoptarse las medidas adecuadas, en particular, un procedimiento confidencial de mediación, previo a la revelación, en cuyo marco tanto la persona adoptada como su padre y madre biológicos serán informados de las respectivas circunstancias familiares y sociales y de la actitud manifestada por la otra parte en*

*buruz agertu duen jarreraren berri ere.*

*relación con su posible encuentro.*

*Informazio hau egiaz eskuratzeko, adingabeek une egokian egon behar dute beren garapenaren bilakaeran, hori da baldintza, eta nahikoa ezagumen izan behar dute, bai eta aditzeko nahikoa gaitasun ere.*

*El acceso efectivo a esta información, en el caso de las personas menores de edad, quedará condicionado a la adecuación del momento evolutivo en el que se encuentre la persona menor de edad y a que tenga suficiente juicio y capacidad para comprender.*

*Pertsona bati adingabe bat ematen zaionean adopzioan, pertsona horrek badu erakundeari eskatzea haurraren edo nerabearen gainean dituen datuak eskura diezazkiola, den haren osasunaren gainekoak, hezkuntzaren gainekoak, edo hari dagozkion beste batzuk ere, hauek izan ezik: haren seme-alabatasunaren inguruko datuekin zerikusia duten informazioak.*

*A partir del momento en que una persona en su calidad de adoptante tenga asignada una persona menor de edad, podrá solicitar que la entidad le proporcione los datos que posea sobre el niño, niña o adolescente, tanto los referidos a su salud y educación como los atinentes a otros aspectos que le conciernan, con la salvedad de las informaciones relacionadas con sus datos de filiación.*

*3. – Bigarren paragrafoan aipatzen den bitartekaritza-prozedura 47.3 artikuluan zehaztuko da, artikulu horretan egiten den bitartekaritzaren arauketaren barruan."*

*3. – El procedimiento de mediación al que se refiere el apartado 2 se determinará en el marco de la regulación de la mediación prevista en el artículo 47.3."*

Pertsona adoptatuek beren jatorri biologikoen inguruko datuak ezagutzeko duten eskubidea Kode Zibileko 5. eta 6. ataletan arautzen da,

El derecho de las personas adoptadas a conocer los datos sobre sus orígenes biológicos viene regulado también en los apartados 5 y 6 del artículo 180 del Código

eta honako hau ezartzen dute:

*"5. Erakunde publikoek adingabearen jatorrien inguruan eskura duten informazioaren kontserbazioa bermatu beharko dute, zehazki, beren gurasoen nortasunari dagokion informazioa zein adingabearen eta bere familiaren historia medikoa, eta gutxienez berrogeita hamar urtetan kontserbatuko dira, adopzio egiten den unetik zenbatzen hasita. Kontserbazioa bermatu beharko da pertsona adoptatuak hurrengo artikuluan adierazten den eskubidea egikaritzeko aukera izan dezan.*

*6. Adoptatuek beren jatorri biologikoei buruzko datuak ezagutzeko eskubidea daukate adin nagusitasunera heldutakoan, bai eta adingabeak diren artean ere, legezko ordezkarien bidez. Erakunde publikoek eskubide hori erabiltzeko behar dituzten aholkularitza eta laguntza eskainiko dizkiete eskatzaileei beren zerbitzu espezializatuen bidez, ukitutako pertsonei aurretik jakinarazi eta gero.*

*Ondorio horietarako, edozein erakunde pribatu zein publikok, erakunde publikoek eta Zerga*

Civil que se expresan en los siguientes términos:

*"5. Las Entidades Públicas asegurarán la conservación de la información de que dispongan relativa a los orígenes del menor, en particular la información respecto a la identidad de sus progenitores, así como la historia médica del menor y de su familia, y se conservarán durante al menos cincuenta años con posterioridad al momento en que la adopción se haya hecho definitiva. La conservación se llevará a cabo a los solos efectos de que la persona adoptada pueda ejercitar el derecho al que se refiere el apartado siguiente.*

*6. Las personas adoptadas, alcanzada la mayoría de edad o durante su minoría de edad a través de sus representantes legales, tendrán derecho a conocer los datos sobre sus orígenes biológicos. Las Entidades Públicas, previa notificación a las personas afectadas, prestarán a través de sus servicios especializados el asesoramiento y la ayuda que precisen para hacer efectivo este derecho.*

*A estos efectos, cualquier entidad privada o pública tendrá obligación de facilitar a las Entidades Públicas*

*Ministerioak hala eskatzen dutenean, adingabearen eta horren jatorriko familiaren inguruko txostenak eta aurrekariak eman beharko dizkie.*

*y al Ministerio Fiscal, cuando les sean requeridos, los informes y antecedentes necesarios sobre el menor y su familia de origen."*

Bestalde, konstituzio-jurisprudentziak zein justizia arruntak ulertu dute seme-alabatasuna eta seme-alabaren jatorriaren identifikazio intimitatearen esparruan sartzen dela eta erreserba horren subjektu aktiboa seme-alaba adoptatua bera dela; hirugarren pertsonek ez dute informazio hori eskuratzeko eskubiderik. Zehazki, Konstituzio Auzitegiaren urriaren 17ko 197/1991 Epaiak, zuzenbideko hirugarren oinarrian honako hau ezartzen du:

Por otra parte tanto la jurisprudencia constitucional como la ordinaria han entendido que la filiación y la identificación del origen del hijo/a forman parte del ámbito de lo íntimo y que el sujeto activo de dicha reserva es el propio hijo/a adoptada, excluyendo a terceras personas de acceder a su conocimiento. Concretamente la Sentencia núm. 197/1991 de 17 octubre, del Tribunal Constitucional, en su Fundamento de Derecho Tercero señala que:

*"(...)*

***Espainiako Konstituzioko 18. artikuluko intimitate pertsonalerako eskubidea hertsiki lotua dago Espainiako Konstituzioko 10. artikuluan aitortzen den «pertsonaren duintasunarekin», eta argi geratzen da «esparru propio eta erreserbatu bat dagoela gainerakoen ekintzaren eta ezagutzaren aurrean, beharrezkoa —gure kulturako ereduen***

*"(...)*

***El derecho a la intimidad personal del art. 18 C.E. está estrictamente vinculado a la «dignidad de la persona» que reconoce el art. 10 C.E., e implica «la existencia de un ámbito propio y reservado frente a la acción y conocimiento de los demás, necesario -según las pautas de nuestra cultura- para mantener una calidad mínima de la vida humana»** -STC 231/1988 ( RTC 1988\231), fundamento jurídico 3.º-. **Desde esta***

**arabera— giza-bizitzaren gutxieneko kalitate bat mantentzeko»** *-Konstituzio Auzitegiaren 231/1988 Epaia (Konstituzio Auzitegiaren 1988\231 Ebazpena), 3. oinarri juridikoa-.* ***Pertsonaren duintasunaren ikuspuntu horretatik, argi dago seme-alabatasuna eta zehazki adoptatuaren jatorriaren identifikazioa intimitatera erreserbaturiko esparru propioaren barruan sartzen dela, eta kasu honetan, gainera, Espainiako Konstituzioko 39.2 artikuluan ezartzen den konstituzio-helburua lortzeko balio du.*** *Ez dago sobera esatea legeria zibilak jarraibide esanguratsua eskaintzen duela datu horien pribatutasunaren inguruan (Kode Zibilaren 178.1 art.).*

*Baina* ***intimitaterako eskubidea ez da bakarrik bizitza pertsonalerako alderdietara zabaltzen, familia-lotura pertsonal eta estua duen beste pertsona batzuen zenbait alderdi ere barne hartzen ditu; alderdi horiek eragina baitute familia-harreman edo -lotura hori dela eta, Espainiako Konstituzioko 18. artikuluaren eskubideak babesten dituen norbanakoaren pertsonalitatearen esferan.*** *«Argi dago gurasoei, ezkontideei edo seme-alabei gertatu*

***perspectiva de la dignidad de la persona, no cabe duda que la filiación, y muy en particular la identificación del origen del adoptado, ha de entenderse que forma parte de ese ámbito propio y reservado de lo íntimo, que además -en este caso sirve también para lograr el objetivo constitucional establecido en el artículo 39.2 C.E. -.*** *No es ocioso recordar a tal efecto que la legislación civil ofrece una pauta significativa sobre la privacidad de estos datos (art. 178.1 C.C.).*

*Pero* ***el derecho a la intimidad se extiende no sólo a los aspectos de la vida propia personal, sino también a determinados aspectos de otras personas con las que se guarde una personal y estrecha vinculación familiar, aspectos que, por esa relación o vínculo familiar, inciden en la propia esfera de la personalidad del individuo que los derechos del art. 18 C.E. protegen.*** *«No cabe duda que ciertos eventos que pueden ocurrir a padres, cónyuges o*

*dakieken zenbait gertaerek, normalean gure gizarte jarraibide kulturalen barruan, hainbeste garrantzia dutela norbanakoarentzat, non behar bezala iragarri edo zabaltzen ez bada, eragin zuzena duela bere pertsonalitatearen esferan bertan. Hori dela eta, intimitaterako (Konstituzioan babestua) eskubidea dago —propioa eta ez beste inorena— (Konstituzio Auzitegiaren 231/1988 Epaia)..."*

*hijos tienen, normalmente y dentro de las pautas culturales de nuestra sociedad, tal trascendencia para el individuo, que su indebida publicidad o difusión incide directamente en la propia esfera de su personalidad. Por lo que existe al respecto un derecho -propio y no ajeno- a la intimidad, constitucionalmente protegido» (STC 231/1988)..."*

Azaldutako guztia aintzat hartuta, arrazoizkoa da ulertzea seme-alabatasunari buruzko informazioa eskuratzea ez dela sartzen informazio publikoaren mende dauden edukien barruan, eta egin duen informazio-eskaera Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko Euskal Autonomia Erkidegoko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen 84. artikuluan eta horrekin bat datozen Kode Zibileko artikuluetan aurreikusitakoaren babespean egin dela ulertu behar da.

A la vista de todo lo expuesto, parece razonable entender que el acceso a información sobre la filiación no está incluido dentro de los contenidos que están sujetos a información pública, y que la solicitud de información formulada por debe entenderse formulada al amparo de lo previsto en el artículo 84 de la Ley 3/2005, de 18 de febrero, de Atención y Protección a la Infancia y la Adolescencia del País Vasco y concordantes del Código Civil.

**<u>Laugarrena</u>.-** Hala ere, ama, dagoeneko hilda dagoena, 1937an jaio zen; hortaz, pentsa daiteke horren ama eta aita — azken batean horien datuak eskatzen

**<u>Cuarto</u>.-** Se da la circunstancia, no obstante, de que la madre de , fallecida, nació en el año 1937, por lo que es fácil suponer que la madre o padre de ésta -que

baitira— ere hilda egongo direla. Horrek esan nahi du izaera pertsonaleko datuak babesteko araudiarengatik babestuak egoteari utziko lioketela.

son en definitiva los datos que se solicitan- pudieran estar también fallecidos. Significaría esto, que, dejarían de estar protegidos por la normativa de protección de datos de carácter personal.

Nolanahi ere, pertsona horien heriotza jasota ez dagoen arren, ezin da baimendu horien inguruko informazioa eskuratzea kontuan izan barik pertsona horien balizko oinordekoek beren aurrekoen ohorea eta irudia babesteko duten eskubidea, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan jasotzen den bezala.

No obstante, aun obviando el hecho de que no consta el fallecimiento de esas personas, el acceso a información sobre las mismas no puede autorizarse sin tener en cuenta el derecho que asiste a sus posibles herederos a proteger el honor y la imagen de sus ascendientes tal como se prevé en la Ley Orgánica 1/1982, de 5 de mayo, sobre protección civil del derecho al honor, a la intimidad personal y familiar y a la propia imagen.

<u>**Bosgarrena**</u>.- Esandako guztiagatik, egindako eskaera behar bezala izapidetu zuen Umeen Zerbitzuak, jatorriak bilatzeko eskaeratzat jo zuelako, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen 84. artikuluan ezartzen denaren babespean.

<u>**Quinto**</u>.- Por todo lo dicho, la solicitud formulada por se tramitó correctamente por el Servicio de Infancia, al calificarla como solicitud de búsqueda de orígenes al amparo del artículo 84 de la Ley 3/2005, de 18 de febrero, de Atención y Protección a la Infancia y la Adolescencia del País Vasco

Hortaz, ezin da esan informazio publikoa eskuratzeko eskaera bat egin duenik

No se puede entender por lo tanto formulada por una solicitud de información pública, ni se ha producido

eta administrazio-isiltasuna egon denik, izan ere, Umeen Zerbitzuak beren-beregi ebatzi baitu eskaera, Gizarte Ekintza Sailaren ekainaren 28ko 38530/2019 Foru Aginduaren bidez.

Hori dela eta, ezin da onartu erreklamazio hau, eta interesdunak, nahi badu, 38530/2019 Foru Aginduaren aurka egin beharko du bide aproposak erabiliz.

Horregatik guztiagatik, Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordea honako hau ebatzi du:

**EBAZPENA**

**Lehenengoa**.-
aurkeztu duen erreklamazioa ez onartzea.

**Bigarrena**.- Bestelako jarduketarik gabe aipaturiko erreklamazioa artxibatzea.

**Hirugarrena**.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea.

Era berean, Herri Administrazioko eta Erakunde Harremanetarako Foru Saileko

silencio administrativo, ya que el Servicio de Infancia ha resuelto expresamente la solicitud mediante la Orden Foral 38530/2019, de 28 de junio, del Departamento de Acción Social.

Por lo tanto, procede la inadmisión de la presente reclamación, debiendo la interesada, en su caso, oponerse a la Orden Foral 38530/2019 por los cauces oportunos.

Por todo ello, la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia dicta la siguiente

**RESOLUCIÓN**

**Primero**.- Inadmitir la reclamación presentada por

**Segundo**.- Archivar, sin más actuaciones, la citada reclamación.

**Tercero**.- Notificar esta resolución a la interesada.

Asimismo se comunicará a la Dirección General de Buen Gobierno y Transparencia

Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritzari jakinaraziko zaio.

Ebazpen hau behin betikoa da, administrazioko bidea amaitzen du, eta zuzenean aurre egin ahalko zaio Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzibideetarako Salan. Horretarako, BI HILABETEKO epea izango da, jakinarazpena egiten den egunaren hurrengotik hasita.

Hori guztia, Bizkaiko Foru Aldundiaren gardentasuneko arloko Erreklamazio Batzordearen eta Bizkaiko foru sektore publikoko erakundeen Antolaketa eta Funtzionamenduari buruzko Araudia onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuko 27. artikuluan eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/98 Legeko 10. eta 46. artikuluetan ezarritako irizpideen arabera.

Bilbon, 2019ko irailaren 13an

del Departamento Foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales.

La presente resolución, que es definitiva, agota la vía administrativa y contra la misma se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de DOS MESES a contar del día siguiente al de su notificación.

Todo ello de conformidad con lo dispuesto en el artículo 27 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia y de las entidades del sector público foral de Bizkaia, y en los artículos 10 y 46 de la Ley 29/98, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

En Bilbao, a 13 de septiembre de 2019